

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2026ko URTARRILAREN 19a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita seigarren urtean, urtarrilaren hemeretzian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2026ko urtarrilaren 14an afixatua izan zen eta 2026ko otsailaren 14an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	14	
Bozkatzaileak	14	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea.

Ahalordea(k):

Falta zirenak: OLÇOMENDY Betti jauna

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Zati denborako lanaldiaren antolaketa
- Bide berri baten izendatzea
- Enedis enpresarekin egin bide zor hitzarmenaren onartzea
- Herriaren eta ELGARREKIN ARTATU sozietatearen arteko alokatze-kontratu profesionalaren baliogabetzea
- Osasun Zentroko osasun-alorreko profesionalendako alokatze kontratu indibidualen edo multzotakoen printzipioaren ontzat ematea
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2025eko abenduaren 11ko bilkuraren bilduma onartu du.

1-2026-01 DELIBEROA - ZATI DENBORAKO LANALDIAREN ANTOLAKETA – 4.1 NOMENKLATURA

Auzapezak langileei oroitarazi die, baldintza jakin batzuetan, zati denborako lanaldi galdea egin dezaketela.

Lanaldi partziala eskubidezkoa izan daiteke familia arrazoiengatik galdatzen denean (haur bat haztea, artak ematea), ahalmen urriko pertsonak galdatzen dutenean, edo baimen bidez eman daiteke eta zerbitzu-beharren arabera.

Araudiak esparru orokor bat finkatzen du, baina organo erabakitzaileari dagokio zati denborako lanaldi baldintza zehatzak erabakitzea, eskubidezkoa izan edo baimen bidezkoa.

2026ko URTARRILAREN 19ko bilduma

Herriko Kontseiluari galdegin zaio hauen erabakitzea: hartzaile diren langileen kategoria, aplikagarri diren zati denborako kuotak, baimenaren iraupena, zati denborako lanaldi galdeak aurkezteko epeak eta lana denbora osoan berriz hartzeko baldintzak.

- **Hartzaile diren langileen kategoria**

Funtzionario titularrek eta funtzionario-gaiek bete ditzakete beren funtzioak zati denborako lanaldian (denbora osoan edo ez-osoan), baita ere kontratupeko langileek.

Salbu zati denborako lanaldia eskubidezkoa denean, zati denborako lanaldi baimen indibidualak lurraldeko aginpideak estimatu zerbitzu-beharren arabera emanen dira. Araudiaren arabera, ezezkoa ematen balitz, lehenago langile galdatzailearekin bilkura bat egingen da.

- **Zati denborako kuotak eta erreferentziazko epea**

Zati denborako lanaldia % 50ean eman daiteke, lurraldeko aginpideak estimatu zerbitzu-beharren arabera.

Lanaldi partziala egunekoa, astekoa, hilabetekoa edo urtekoa izan daiteke; antolaketa horrek baimenaren iraupenerako balioko luke eta baimena berritzean bakarrik berrikusten ahalko da, ezinbesteko kasuan salbu, eta justifikatuz. Lurraldeko aginpideak finkatuko luke zerbitzu-beharren arabera.

Eskubidezko zati denborako lanaldirako, lanaldiaren antolaketa lurraldeko aginpideak finkatuko luke langilearekin kontzertazioan, eta zerbitzu-beharren arabera. Baimen denboran berrikusten ahalko da arrazoi larriengatik.

- **Baimenaren iraupena eta langilearen galdea**

Zati denborako lanaldian lan egiteko baimena sei hilabete eta urte bat artekoa litzateke. Baimena hau adierazi gabe luzatzen ahalko da hastapeneko baimenaren iraupen bererako, baldin eta zati denborako lanaldiaren betetzeko baldintzak ez badira aldatzen. Araudiaren arabera, adierazi gabeko luzatzea ez da 3 urte baino luzeagoa izaten ahalko, hastapeneko baimena barne.

Langileak zati denborako lanaldi galdea edo luzatze galdea aurkeztu beharko du indarrean ezarri baino 2 hilabete lehenago edo memento horretako lanaldian; bestela, zati denborako lanaldi baimena geldituko litzateke.

Langilearen galdeak zehaztu beharko du xede dituen epea, zati denborako lanaldi kuota eta antolaketa, baldin eta Herriko Kontseiluak erabaki moldeekin eta xede den lan-antolaketarekin bateragarriak badira. CNRACLri kidetuak diren funtzionarioak, erretretarako ordainsari gehigarria pagatu nahi dutenek zati denborako lanaldian, gehigarri horren pagatzeko galdea zati denborako lanaldi galdearekin batean aurkeztu beharko da.

Bere lanpostura itzuli edo zati denborako lanaldiko baldintzak aldatu nahi dituen langileak, zati denborako lanaldia bururatu baino lehen, galdea egin beharko du gutienez bi hilabete lehenago.

Berehala lanpostuan berriz sartzea posible da langileentzat arrazoi larriengatik, bereziki etxeko irabaziak anitz apaltzen badira edo familia-egoera aldatzen (heriotza, dibortzioa, banatzea, langabezia, etab.). Lana berehala berriz hartzeko galdea kasuan kasu ikertuko du lurraldeko aginpideak.

Herriko Kontseiluak, auzapeza entzun ondoan bere esplikazio osagarrietan, Herriarteko Lurralde Batzorde Soziala osatzen duten bi biltzarrek 2025eko abenduaren 11ko bilkuran iritzia eman ondoan eta eztabaidatu ondoan,

- **ONARTU ditu** auzapezak proposatu zati denborako lanaldiaren antolaketa-moldeak eta indarrean sartuko dira **2026/02/01**ean.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 14
ALDE: 14
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

2- 2026-02. DELIBEROA – BIDE BERRI BATEN IZENDATZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluak eta Euskal Hirigune Elkargoak abiatu Biziki Banda Zabaleko sarearen garatzearen kariatara helbideratzea beharrezkoa da zuntz optikoaren merkaturatzeko, lurraldeko etxe eta enpresek identifikatuak behar baitute.

Etxeak eta enpresak kokatuz segurtasuna ere hobetuko da (suhiltzaileak eta sokorriak) eta zerbitzuak ere (gutunak, sare hornitzaileak, banatzea, etxerako laguntza, etab.). Eraikitze-baimen bat eman da kiroldegia eraikitzeko kirol-gunearen ondoan eta orain eraikin horretaraino joanen den bideari izena eman behar zaio.

Bidearen izena artoski hautatu da, lekuko toponimia eta etxeen izena atxikitzeko.

Izen honen onartzea proposatu da:

Nom de la voie ou du chemin	Bidearen izena
Chemin de Zaldugarai	Zaldugaraiko bidea

Herriko Kontseiluak, azalpen hori entzun ondoan eta deliberatu ondoan, aho batez:

- **ONARTU du** bide horren izena.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 14
ALDE: 14
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

3- 2026-03 DELIBEROA – KITORIK DEN BIDE ZOR HITZARMENAREN ONARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak biltzarrari jakinarazi dio Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeak egin obren kariatara, elektrika linea bat lurperatu dela AB 381 eta AB 383 lursailen zolan (herriko jabego pribatuak).

Herriko Kontseiluak, auzapezak proposaturik, eta deliberatu ondoan:

ONARTU du AB 381 eta AB 383 lursailek bide zor bat ukaitea kitorik, gorago aipatu elektrika handik iragateko;

ZEHAZTU du bide zor hori formalizatuko dela agiri administratibo baten bidez herriaren eta Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldearen artean.

BAIMENA eman dio auzapezari gai horri buruzko dokumentu oro izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 14
ALDE: 14
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

4- 2026-04 DELIBEROA - HERRIAREN ETA ELGARREKIN ARTATU SOZIETATEAREN ARTEKO ALOKATZE KONTRATU PROFESIONALAREN BALIOGABETZEA – 3.3 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak oroitarazi du Herriak 2024ko maiatzean alokatze-kontratua eman ziola ELGARREKIN ARTATU sozietateari, Geltokiko Karrikako 20.ean, 6 urterako.

Bizkitartean, elementu batzuek lanjerean ezartzen dute Osasun Zentroaren funtzionamendua (profesional bat baino gehiago partitzen balira, besteen parte hartzea emendatuko liteke).

Beraz, dagoen alokatze-kontratua baliogabetu behar da kontratu indibidualak edo multzotakoak egiteko.

2025eko azaroaren 17an, Elgarrekin Artatu sozietateko kideek, beren biltzar nagusian, aho batez onartu zuten sozietatea eta herria lotzen dituen alokatze-kontratuaren baliogabetzea.

Horrela, parteek hitzartu dute alokatze-kontratua baliogabetzea **2026/02/28tik** goiti.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU du** alokatze-kontratuaren baliogabetzea 2026/02/28tik landa
- **ARDURA eman dio** jaun auzapezari urrats guzien betetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 13
Bozkan parte hartu ez duten pertsonak: 1
ALDE: 13
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

5- 2026-05 DELIBEROA - OSASUN ZENTROKO OSASUNNEKO PROFESIONALENAKO ALOKATZE KONTRATU INDIBIDUALEN EDO MULTZOTAKOEN PRINTZPIOAREN ONARTZEA – 3.3 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak oroitarazi du ELGARREKIN ARTATU sozietatearekin den alokatze-kontratua 2026/03/01etik goiti baliogabetua izanen dela.

Jaun auzapezak jakinarazi dio Kontseiluari beharrezkoa izanen dela alokatze-kontratu indibidualak edo multzotakoak egitea, Osasun Zentroko osasuneko profesionalekin.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONTZAT eman du** Osasun Zentroko profesionalekin alokatze-kontratu indibidualen edo multzotakoen printzipioa

2026ko URTARRILAREN 19ko bilduma

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 13
Bozkan parte hartu ez duten pertsonak: 1
ALDE: 13
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

/

Gai orotarik

!

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre, *Betti*, jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea.

Bilkuran hartu deliberoak 1etik 5era zenbakituak ziren.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>